

Prentsa Oharra **Nota de Prensa**

"Pisando fuerte", 2026ko Mahats-bilketaren Jaiaren irudia

Laguardia, 2026ko ekainaren 5a. "Pisando fuerte" aukeratu dute 2026ko Mahats-bilketaren Jaia iragartzeko kartel, orain ar-teko ediziorik parte-hartzaileenean. Lanak aurkezteko formatu digitala ezartzeak eta sariaren diru-kopurua (aurten 1.000 euro) handitzeak lehiaketarekiko interesa areagotzen lagundu dute. Saria osatzeko, 200 euroko balioa duen *Visit Rioja Alavesa* bonu bat eta ardo sorta bat daude. Irabazleak gaur goizean jaso du saria kartela aurkezteko ekitaldian.

Ekitaldian izan dira Noemí Aguirre, Nekazaritzako foru diputatua; Raimundo Ruiz de Escudero, HAZIko zuzendaria; José María Elvira, Arabako Errioxako Kuadrillako presidentea; Esther Calleja, Kripango zinegotzia; Rosa García, Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbideko presidentea; eta Paula Pascual, ABRAko ordezkaria. Lanaren egilea ere bertan izan da, Bartzelonatik etorri baita aurkezpenean parte hartzera. Abelardo Gandullo kataluniarra oin-arrastoa protagonista duen irudiaren sortzailea da. Arrasto bat, ardoz tindatua, mahatsa zapaldu berri balu bezala. Barruan, herri oso baten silueta marrazten da: Kripan, 2026ko irailaren 13an Arabako Errioxako Mahats-bilketaren XXXI. Jaia hartuko duen udalerria, historian bigarren aldiz.

Epaimahaiak 110 proposamen baino gehiagoren artean aukeratu zuen lan irabazlea. Parte-hartze handia izan zenez, epaimahai bikoitzak parte hartu behar izan zuen. Lehenengo fasean, sormen arloko profesionalek eta Kripan udalerriko ordezkariak osatutako epaimahai tekniko batek lanen aurrehautaketa bat egin zuen. Ondoren, erakunde antolatzaileek zazpi finalisten artean aukeratu zuten kartel irabazlea. "Pisando fuerte" gailendu zitzairen argi eta garbi, puntuazio gorena lortuz eta bigarren proposamen baloratuenarekiko abantaila nabarmena lortuz.

Ardo-lehiaketa

Jaiaren irudia hautatu izanak prestaketa lanak azkartzen ditu. Aurten, Ardoen Lehiaketak hogeita hamabigarren edizioa izango du, eta iaz ezarritako daten aurrerapenari eutsiko dio. Neurri horri esker, urteko ardoak unerik onenean dastatu ahal izango dira. Deialdia zabalik dago parte hartu nahi duten Errioxako JDKko upategi guztientzat. **Laginak aurkezteko epea ekainaren 30era arte** egongo da zabalik. Ohikoa denez, laginak Arabako Errioxako Kuadrillako egoitzan entregatu beharko dira.

Dastatze-sistema eta parte hartzeko arauak aurreko edizioekiko aldaketarik gabe mantenduko dira. Lehiaketak bederatzi kategoria izango ditu aurten: bost ardo beltz, hiru ardo zuri eta bat ardo gorrientzat.